

ERRENTERIAZ ZENBAIT OHAR.—Erreteria hitza euskalduna den ala ez zalatzen jarri duenik ere bada. Azaleko itxuraz hori ematen bai du. Baina Azkueren Hiztegia begiratzean, honako hau irakurriko dugu: «*Erreteria* (B, G), aduana, douane. (??) (*Zeinbat itzaiñak, ikatzak olara eroaten, erreterietatik mea ekarten? ¿cuanto (no ganen) los boyeros, llevando carbón á la herrería, trayendo mineral de las aduanas? combien (ne gagnent pas) les bouviers, en apportant du charbon à la forge et du minerari des douanes?*) (Per. Ab. 129-4). Mogelek *Peru Abarka* liburuan erabiltzeko arrazoirik aski izango zuen, olazaharrak bizi zeuden garaian eta Ondarruko Erreteria Marikatik nahiko hurbil zuenez.

*Fielato* edo *aduan*a gisa erabili zen Bizkai-Gipuzkoetan foruen garaian, Espainiako erresumaren aduanak Ebron zeude nean. Horregatik, izen hori bere sustraiz latinetikakoa bada ere, hemen, euskararen bidez, mamitua da. Eta ez da batere harritzekoa Bizkai eta Gipuzkoaren itsas-hegalean, ibaiak itsasoruntza irtetzen diren inguruetan kokatzea. Bilbo, Bermio, Gernika-Axangiz, Ondarroa eta abar. Bereziki Gipuzkoan, hiri batek izen hori hartu duenez.

Badakit izen honek auziak sortu dituela, baita ere badakit karismak zer diren, «Plaza eta Enparantza ez dira gauza bera» (*Egan*, 1984, 1-2 zenb. 121 orr.) idaztean agertu nuen bezala. Hala ere, arrazoizkoa deritzadanari ez diot ukorik egingo.

Gainera, batak bestea ez du ukatzen. Edonork daki, bazela toki bat Orereta, eta oso ongi zioen «Orereta gure herriko izena da» hormetan iragarri zuenak. Beste gauza bat da herriaren izena izatea. Herriko eta herriaren ez bai dira gauza bera. Hala ere, aitor dezadan saltsa horietan sartzeko gogorik eza. Bai hordea hor zehar barreiatua den liburuxka bategatik zenbait argitasun ematea.

Lehenik Erreteria hitzaren euskalduntasuna agertuz eta gero historiako zenbait ohar eskainiz.

Xenpelarren ez zuen kezkarik eta axolarik gabe barra-barra erabili zuen bere bertsoetan. Ba ote zekin Orereta zer zenik?

